

Normalizazio Txostena

1. DATU OROKORRAK

Txosten zk.	2006/000
Data	2006-05-XX

Aztergaia	iragazkor, iragazkortasun / permeakor, permeakortasun
Eskaeragilea	Ingurumen hiztegia aztertzeke batzorde teknikoa
Xedea	termino egokia finkatzea
Proiektua	Ingurumen hiztegi entziklopedikoa

2. INFORMAZIO TERMINOLOGIKOA

TR	iragazkor, iragazkortasun	KG	izonondua, izena	IT	AM21
SN		KG		IT	
EE	ingurumena			EK	ING

DF	iragazkortasun: Solido batek (lurzorua, harriak, mintzak...) bere barnetik likidoari edo gasari iragaiten uzteko duen ahalmena. Gai solidoaren porositatearen eta poroen arteko komunikazioaren araberakoa da iragazkor	IT	INGHE
OH		IT	
TS	hondakindegia / geologia / zarata / daradarak / erradiazioa / lurpeko uren kutsadura	IT	
IR		IT	

es	permeable, permeabilidad	IT	BC 13
fr	permeable, perméabilité	IT	Robert
en	permeable; permeability	IT	Webster
de	durchlässig; Durchlässigkeit/Permeabilität	IT	Eurodicaut om
	permeabile; permeabilità	IT	Eurodicaut om

Erlazionatutako terminoak

TR	iragaztezin (en impermeable / es impermeable / fr impermeable)	KG		IT	
-----------	--	-----------	--	-----------	--

3. DOKUMENTAZIOA

Euskarazko obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

<p>Geologia hiztegia (Elhuyar):</p> <p>iragazkortasun (en permeability / es permeabilidad / fr perméabilité) iragazkor (en permeable / es permeable / fr permeable) iragaztezin (en impermeable / es impermeable / fr impermeable)</p>	IT	
<p>Orotariko Euskal Hiztegia</p> <p>iragazi, irazi 1.1 iragazi, irazi: filtrar, colar, pasar <Kare aitzari ixurten zaiozkan ur iragazietatik sortutako leiar distiatu ikusgarriakin> <Iragazten da esne jetzi berria> <Bae xeean igaziak> <Eltxoa iragazi (ez iresteko) ta kamelua, berriz, kezkarik gabe iretsi> <Bahe fonetikoan barrena, bestela esan, iragazi behar ditugu> <Esne irasia> <i>lait coulé</i> <Esnea irexi biagu> <i>tenemos que colar la leche</i> <Gidariitsuak, eltxoa irazten duzue eta kamelua iresten> <i>Coulez le moucheron</i> <Mats garu irazietatik ateretan dan ardaoagaz> <Egosi denean, saltsa irazazu></p> <p>1.2 iragazi, irazai: pasar, atravesar <Gozotasuna iragazten zait begiyetatik biyotzera> <Nere bista iragaz baliteke arbol oien eta lañu lori orren tartetik></p> <p>2 iragazi: Cribar, purificar (?)</p> <p>3 iragazi (izena) Filtro</p>	IT	BA35
<p>Euskal hiztegia</p> <p>iragazi, irazi (du ad.) Isurkari bat iragazkitik igaroarazi, filtratu: <i>Esnea iragazi eta gatzagia eman / Airea iragazi / Erljiozko sinesteek jakintzaren irakaspenak iragaz ditzaten / Ur irazia / Har ezazu arruta eta kamamila ahur bat bana eta irakin pinta erdi bat ardotan; gero irazi duzunean emaiozu behiari edatera / Xehatzen da intxaurren mamia mortairuan eta irazten zurdazko bahe batean.</i></p> <p>irazgaitz/iragazgaitz (1965) (izond.) Lurrei, ehunei...buruz hitz eginez, ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten ez duena, <i>Lur geruza irazgaitzak. Ehun irazgaitza. Ekai irazgaitzak.</i></p> <p>irazkor/iragazkor (1965) (izond.) Lurrei, ehunei... buruz hitz eginez, ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten duena. <i>Lur geruza irazkorra.</i></p> <p>filtratu (du ad.) (1977) (nart.) Irazi</p> <p>filtro (1977) (nart.) Irazkia</p>	IT	BB38

Hiztegi Batua	IT	AM21
<p>iragazgaitz <i>Sin.</i> irazgaitz iragazgaitzasun <i>Sin.</i> irazgaitzasun iragazi <i>Sin.</i> irazi iragazki <i>Sin.</i> irazki 1 iragazkor <i>Sin.</i> irazkor iragazkortasun <i>Sin.</i> irazkortasun</p>		

Beste hizkuntzetako obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

<p>Hainbat definizio</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ability of rock to transmit fluids through pore spaces. www.rrc.state.tx.us/divisions/og/glossary.html • The capability of soil or other geologic formations to transmit water. www.mwdoc.com/glossary.htm • the ability of a material to allow the passage of a liquid, such as water through rocks. Permeable materials, such as gravel and sand, allow water to move quickly through them, whereas unpermeable material, such as clay, don't allow water to flow freely. mvhs1.mbhs.edu/riverweb/glossary.html • Capacity of a rock or soil material to transmit a fluid. www.plenvironment.com/pages/glossary.htm • The ease of movement of water and/or gases through a soil material. www.biosolids.state.va.us/research.htm • 1) the passage or diffusion (or rate of passage) of a gas, vapor, liquid, or solid through a barrier without physically or chemically affecting it. 2) the ability of a material to carry magnetism as compared to air which has a permeability of 1. www.accum.com/defs.htm • a measure of the ease with which a fluid flows through the connecting pore spaces of a rock. www.fi.edu/fellows/fellow2/jan99/new/oilvocab.html • The ability of a material to transmit fluid through its pores when subjected to a difference in head. www.srh.weather.gov/srh/jetstream/append/glossary_p.htm • The rate at which liquids pass through soil or other materials in a specified direction. www.waterquality.de/hydrobio.hw/PTERMS.HTM • A qualitative description of the relative ease with which rock, soil, or sediment will transmit a fluid (liquid or gas). Often used as a synonym for hydraulic conductivity or coefficient of permeability. www.nsc.org/ehc/glossar1.htm • The capability of a given substance to allow the passage of a fluid. Permeability depends on the size of and the degree of connection among a substance's pores. college.hmco.com/geology/resources/geologylink/glossary/p.html • A measure of the relative ease with which water will move through soil or rock. www.bmwd.org/Terminology.htm • The time rate of water vapor transmission through unit area of a material of unit thickness induced by unit vapor pressure difference between two specific surfaces, under specified temperature and humidity conditions. (add units like above) www.foam-tech.com/glossary.htm • the quality or condition of allowing passage of liquids or gases through a layer. QR SAE: the abbreviation for the Society of Automotive Engineers. www.staffgasket.com/glossary.html 	IT	
--	-----------	--

<ul style="list-style-type: none"> • means the capacity of soil, rock, or other material to transmit fluids. www.scdhec.net/egc/water/html/landdef.html • (i) The ease with which gases, liquids, or plant roots penetrate or pass through a bulk mass of soil or a layer of soil. Since different soil horizons vary in permeability, the particular horizon under question should be designated. (ii) The property of a porous medium itself that expresses the ease with which gases, liquids, or other substances can flow through it, and is the same as intrinsic permeability k. See also intrinsic permeability, Darcy's law, and soil water. www.soils.org/sssagloss/cgi-bin/gloss_search.cgi • The relative ease with which a porous medium can transmit a liquid under a hydraulic gradient. In hydrology, the capacity of rock, soil, or sediment to allow the passage of water. web.em.doe.gov/wssrap/glossary.html • Capacity of a soil or other surface to be penetrated by water sinking into the ground under the force of gravity. It thus expresses the rate of percolation. www.novalynx.com/glossary-p.html • A measure of the rate at which water can percolate through soil. compost.css.cornell.edu/glossary.html • (1) the capacity of a porous material to conduct or transmit fluids; (2) the amount of a fluid moving through a barrier in a unit time, unit area, and unit pressure gradient not normalized for, but directly related to, thickness. www.waynesroofing.com/glossary5.html • describes how fast ions are able to move thru an ion channel (the rate of movement). The "depth" of the energy well for a particular ion generally determines its permeability, or conductance. However, if an energy well is too deep, it can slow down the ion's rate of travel. Note: all binding sites for an ion in a channel have energy wells specific to the interaction that takes place. opal.msu.montana.edu/cftr/ion_channel_glossary.htm • while not a term of ultrasonics, per se, permeability of membranes (including skin) can be altered by application of ultrasonic energy (see What's New?). home.att.net/~Berliner-Ultrasonics/us-gloss.html • Ability of a compound to diffuse across biological membranes. www.solvo.hu/glossary.html • a measure of a porous material's ability to allow fluids or gases to flow through its pores. An important property of rocks that determines how much and how rapidly fluids or gases can move through them; for example, how much water can be pumped from an aquifer (see: porosity). www.dep.state.fl.us/geology/geologictopics/glossary.htm • A measure of the ease with which a fluid such as water or oil moves through a rock when the pores are connected. Geologists express permeability in a unit named the darcy, but oilmen use the millidarcy because most of the rocks they come in contact with are not very permeable. www.maverickenergy.com/lexicon4.htm • the property of something that can be pervaded by a liquid (as by osmosis or diffusion) wordnet.princeton.edu/perl/webwn • In geology, permeability is a measure of the ability of a material (typically, a rock or unconsolidated alluvial material) to transmit fluids through it. It is of great importance in determining the flow characteristics of hydrocarbons in oil and gas reservoirs, and of groundwater in aquifers. The usual unit for permeability is the darcy, or more commonly the millidarcy or md (1 darcy = $1 \times 10^{-12} \text{m}^2$). en.wikipedia.org/wiki/Permeability(geology) 		
<p>GDT</p> <p>filterability synonyme(s) filtrability</p>	IT	AI91

<p>filtrabilité n. f. terme normalisé par un organisme international Lorsqu'elle se rapporte au traitement des boues, est une indication de la facilité avec laquelle le liquide peut être séparé des solides par filtration</p> <p>filtrabilité n. f. English filterability Définition : Aptitude d'une pulpe à la filtration (industrie minière)</p> <p>coefficient de filtrabilité n. m. synonyme(s) indice de filtrabilité n. m English filterability index Coefficient exprimant la valeur de la perte de charge au travers d'un élément microfiltrant en fonction du volume filtré.</p>		
<p>Merriam-Webster</p> <p>filterable</p> <p>Variant(s): <i>also</i> fil·tra·ble Function: <i>adjective</i> : capable of being filtered or of passing through a filter - fil·ter·abil·i·ty <i>noun</i></p> <p>(http://www.thefreedictionary.com/filterable 1. That can be filtered or separated by filtering: filterable solutions of granular matter. 2. That can pass through a given pore size.)</p> <p>permeable</p> <p>Main Entry: per·me·able Pronunciation: 'p&r-mE-&-b&l Function: <i>adjective</i> : capable of being permeated : PENETRABLE; <i>especially</i> : having pores or openings that permit liquids or gases to pass through <a <i>permeable</i> membrane> <<i>permeable</i> limestone></p> <p>permeate</p> <p>Function: <i>verb</i> Inflected Form(s): -at·ed; -at·ing Etymology: Latin <i>permeatus</i>, past participle of <i>permeare</i>, from <i>per-</i> through + <i>meare</i> to go, pass; akin to Middle Welsh <i>mynet</i> to go, Czech <i>mijet</i> to pass <i>intransitive senses</i> : to diffuse through or penetrate something <i>transitive senses</i> 1 : to spread or diffuse through <a room <i>permeated</i> with tobacco smoke> 2 : to pass through the pores or interstices of - per·me·ative <i>adjective</i></p> <p>impermeable</p> <p>Function: <i>adjective</i> Etymology: Late Latin <i>impermeabilis</i>, from Latin <i>in-</i> + Late Latin</p>	IT	Webster

<p><i>permeabilis</i> permeable : not permitting passage (as of a fluid) through its substance; <i>broadly</i> : IMPERVIOUS - im·per·me·abil·i·ty</p> <p>impermeable <i>adj.</i> [Geology] Pertaining to a rock that is incapable of transmitting fluids because of low permeability. Shale has a high porosity, but its pores are small and disconnected, so it is relatively impermeable. Impermeable rocks are desirable sealing rocks or cap rocks for reservoirs because hydrocarbons cannot pass through them readily. Antonyms: permeable (http://www.glossary.oilfield.slb.com/Display.cfm?Term=impermeable)</p>		
<p>RAE</p> <p>permeabilidad. 1. f. Cualidad de permeable. ~ magnética. 1. f. <i>Fís.</i> En un campo magnético, cociente de dividir la inducción por el poder imanador.</p> <p>permeable. (Del lat. <i>permeabilis</i>, penetrable). 1. adj. Que puede ser penetrado o traspasado por el agua u otro fluido.</p> <p>permear. (Del lat. <i>permeāre</i>). 1. tr. Dicho de un líquido: Penetrar en un cuerpo o traspasarlo. 2. tr. Dicho de una idea o de una doctrina: Penetrar en algo o en alguien, y más específicamente en un grupo social.</p>	IT	BC13
<p>EURODICAUTOM</p> <p>Subject Biology - Biotechnology (BZ) Geology (GO)</p> <p>EN</p> <p>Definition the readiness with which soil or rock allows air,water or plant roots to penetrate or pass through</p> <p>Reference Ford-Robertson,Soc.Am.Foresters (1)</p> <p>TERM permeability</p> <p>Reference Ford-Robertson,Soc.Am.Foresters</p> <p>Note {GRM} n. {NTE} for water in soil,generally expressed as the amount of water traversing a unit area of soil per unit time and per unit hydraulic gradient,with the soil in a(sub)saturated condition,termed the percolation rate(hydraulic conductivity);sometimes roughly assessed by air-permeability methods</p> <p>DA</p> <p>(1) TERM permeabilitet</p> <p>Reference Skovteknisk Institut</p>	IT	3100

DE

(1)
 TERM
 Durchlässigkeit
 Reference
 METRO

ES

(1)
 TERM
 permeabilidad
 Reference
 METRO

FI

(1)
 TERM
 läpäisevyys
 Reference
 Turvesanakirja

FR

Definition
 aptitude d'un sol ou d'une roche à se laisser pénétrer par l'air, l'eau ou les racines des plantes
 Reference
 METRO
 (1)
 null
 Reference
 METRO
 Note
 {NTE} on se contente parfois d'apprécier la perméabilité à l'eau d'après la perméabilité à l'air
 (2)
 TERM
 perméabilité
 Reference
 METRO
 Note
 {NTE} la perméabilité du sol à l'eau est généralement exprimée par la quantité d'eau traversant l'unité de surface du sol, par unité de temps, et par unité de charge hydraulique, lorsque le sol est en condition presque saturée; c'est le coefficient de perméabilité (ou de conductibilité hydraulique)

IT

Definition
 la facilità con cui un suolo o una roccia consente la penetrazione o l'attraversamento dell'aria, dell'acqua oppure anche delle radici
 Reference
 Accademia italiana di Scienze forestali
 (1)
 TERM
 permeabilità
 Reference
 Accademia italiana di Scienze forestali
 Note

{DOM} talvolta stabilita approssimativamente con metodi basati sulla permeabilità all'aria, cfr. velocità di infiltrazione; per l'acqua nel suolo viene generalmente espressa in base alla quantità che attraversa una unità di suolo nell'unità di tempo con il suolo in condizioni (sub) sature e quindi viene misurata dalla velocità di percolazione; geologia-pedologia; talvolta stabilita approssimativamente con metodi basati sulla permeabilità all'aria, cfr. velocità di infiltrazione

(1)

null

Reference

Accademia italiana di Scienze forestali

Note

{DOM} talvolta stabilita approssimativamente con metodi basati sulla permeabilità all'aria,cfr.velocità di infiltrazione;per l'acqua nel suolo viene generalmente espressa in base alla quantità che attraversa una unità di suolo nell'unità di tempo con il suolo in condizioni(sub)sature e quindi viene misurata dalla velocità di percolazione;geologia-pedologia

(2)

TERM

permeabilità

Reference

Accademia italiana di Scienze forestali

Note

{DOM} talvolta stabilita approssimativamente con metodi basati sulla permeabilità all'aria,cfr.velocità di infiltrazione

NL

(1)

TERM

doorlaatbaarheid

Reference

Ir.Juta,Staatsbosbeheer

PT

(1)

TERM

permeabilidade

Reference

Universidade Aberta Lisboa e Secção de Pedologia(UTL/ISA)

SV

(1)

TERM

permeabilitet

Reference

Geologisk odlista,1988,TNC 86

Subject

Geology (**GO**)

EN

Definition

ability of water to penetrate soil measured as quantity per area, time and pressure gradient and usually indicated in m/s

Reference

TNC 62

(1)

TERM

permeability

<p>Reference TNC 62 (2) TERM coefficient of permeability Reference TNC 62</p> <p>DA (1) TERM permeabilitet Reference TNC 62 (2) TERM permeabilitetskoefficient Reference TNC 62</p> <p>DE (1) TERM Durchlaessigkeit Reference TNC 62 (2) TERM Permeabilitaet Reference TNC 62 (3) TERM Durchlaessigkeitskoeffizient Reference TNC 62</p> <p>EL (1) TERM διαπερατότητα, συντελεστής διαπερατότητας Reference Αγγλοελληνικό λεξικό Penguin-Hellenews, Β~έκδ., Hellenews-Παιδεία 1981</p> <p>ES (1) TERM permeabilidad Reference CSIC (2) TERM coeficiente de permeabilidad Reference CSIC</p> <p>FR (1) TERM</p>		
---	--	--

perméabilité

Reference

TNC 62

(2)

TERM

coefficient de perméabilité

Reference

TNC 62

IT

(1)

TERM

permeabilità

Reference

Prof. Bruner

(2)

TERM

coefficiente di permeabilità

Reference

Prof. Bruner

NL

(1)

TERM

permeabiliteit

Reference

TNO, Delft

(2)

TERM

permeabiliteitscoëfficiënt

Reference

TNO, Delft

PT

(1)

TERM

permeabilidade

Reference

Universidade Aberta Lisboa

(2)

TERM

coeficiente de permeabilidade

Reference

Universidade Aberta Lisboa

SV

Definition

genomtränglighet av vatten i jord; mäts som massa per area, tid och tryckgradient och uttrycks vanligen i m/s

Reference

TNC 62

(1)

TERM

permeabilitetskoefficient

Reference

TNC 62

(2)

TERM

permeabilitet

Reference

TNC 62

ES

(1)

TERM

filtrabilidad

Reference

Elsevier's Dict. of barley, malting and brewing, 1961

DA

(1)

TERM

filtrerbarhed

Reference

Dr Trolle,Kbh

DE

(1)

TERM

Filtrierbarkeit

Reference

EBC

EN

(1)

TERM

filterability

Reference

EBC

FI

(1)

TERM

suodattuvuus

Reference

Enari,Tor-Magnus,Mäkinen,Veijo,Panimotekniikka,2.uusittu painos,1993,Oy Panimolaboratorio,Kirjapaino TT,Porvoo,s.41,s.158

FR

Definition

propriété des corps filtrants, entendus au sens de virus filtrants

Reference

Quillet,Aristide,Dictionnaire encyclopédique Quillet,1958,Quillet,Paris

(1)

TERM

filtrabilité

Reference

Quillet,Aristide,Dictionnaire encyclopédique Quillet,1958,Quillet,Paris

Note

{DOM} sciences médicales et biologiques:microbiologie

IT

(1)

TERM

filtrabilità

Reference

OITANA

<p>NL (1) TERM filtreerbaarheid Reference EBC</p> <p>PT (1) TERM filtrabilidade Reference J.M.Cruz,Dir.Qual.Ind.UNICER</p> <p>SV (1) TERM filtrerbarhet Reference TNC,1999</p>		
---	--	--

Adituengandik bilduak

<p>Iñaki Antiguiedad geologoaren oharra:</p> <p>IRAGAZKOR eta horrelakoak, erderazko PERMEABLE horren ordeko moduan guztiz dago zabaldua euskaraz, baina guztiz dago oker, 'permeable' eta 'filtrable' oso kontzeptu desberdinak direlako, hidro(geo)logian argi eta garbi behinik behin.</p> <p>KONTUZ! impermeable ez da euskaraz iragaztezin!. IRAGAZI kontzeptua fluido batek esekita dituen PARTIKULAK kentzeko sistemaz (edo materialaz, edo ekintzaz) erabili ohi da. PERMEABILITATEA ez da hori, zera da: "the property of a material or soil that allows the movement or passage of water"</p>	IT	
---	-----------	--

4. PROPOSAMENA

TR	KG	IT	
<p>Arrazoibidea</p>	<p>ARAZOAREN AURKEZPENA</p> <p>Bi termino-sail edo -familia daude:</p> <p>1 Alde batean, jatorrian latinezko <i>filtrum</i> izenetik atera direnak:</p> <p>es filtrable fr filtrable en filtrable/filterable</p> <p>es filtrabilidad fr filtrabilité en filtrability/filterability</p> <p>Oro har, likido eta gasen propietatea da; material batean barrena pasatzeko gaitasuna adierazten du.</p>		

Esanahia desberdina bada ere, jatorri bereko termino gehiago ere badaude:

es filtración
fr filtration
en filtration

...

Beste aldean, jatorrian latinezko *permeare* aditzetik atera direnak:

2

es permeable
fr perméable
en permeable
es impermeable
fr imperméable
en impermeable

es permeabilidad
fr perméabilité
en permeability

es impermeabilidad
fr imperméabilité
en impermeability

es semipermeable
fr semiperméable; hémiperméable
en semipermeable

...

Oro har, solidoen propietatea da; likidoei eta gasei bere barnean barrena pasatzen uzteko edo ez uzteko gaitasuna adierazten du.

Ingurumen hiztegian, iragazkor, erdiiragazkor, iragazkortasun, iragazgaitz, iragaztezin eta iragazgaiztu erabili dira solidoen propietateari buruz jardutean.

Bestalde, *iragazketa* eta *ultrairagazketa* ere erabili dira erdal *filtración/filtration/filtration* eta *ultrafiltración/ultrafiltration/ultrafiltration* adierazteko.

Ingurumen hiztegiaren aholkulari hidrogeologo batek ohar hauek egin ditu:

1- *IRAGAZKOR eta horrelakoak, erderazko PERMEABLE horren ordezko moduan guztiz dago zabaldua euskaraz, baina guztiz dago oker, 'permeable' eta 'filtrable' oso kontzeptu desberdinak direlako, hidro(geo)logian argi eta garbi behinik behin.*

2- *Impermeable ez da euskaraz Iragaztezin! IRAGAZI kontzeptua fluido batek esekita dituen PARTIKULAK kentzeko sistemaz (edo materialaz, edo ekintzaz) erabili ohi da. PERMEABILITATEA ez da hori.*

Alde batera utzita ohargileak euskarazko terminoei buruz duen iritzia

(euskaraz zer dagoen gaizki eta zer oker, edo euskaraz zer den zer eztabaida), garbi dago arrazoi duela esaten duenean *permeable* eta *filtrable* eta kontzeptu desberdinak direla eta arazo bat dela bi kontzeptu horiek adierazteko hitz bera erabiltzea, hau da, arazo terminologiko bat dagoela (*permeability* eta *filtrability* kontzeptuak, adibidez, euskaraz *iragazkortasun* termino bakarraz adieraztea). Aztertu behar da, beraz, ea polisemia hori onargarria den ala ez, eta ezezkoan zer irtenbide dauden.

IRAGAZI/IRAZI ADITZAREN EREMU SEMANTIKOA ETA ERATORRIAK

Euskaraz, *irazi/iragazi* aditza eta eratorriak (*iragazkor*, */iragazgaitz*, *iragaztezin*, *iragazkortasun*, *iragazgaiztu*) erabiltzen ari dira testu teknikoetan. Aditz horrek tradizioan izan duen erabilerari begira, bi adiera (nagusi) eta erregimen ditu, *Orotariko Euskal Hiztegiak* erakusten duenaren arabera:

1 du aditza

filtrar, colar, pasar

<Kare aitzari ixurten zaiozkan ur iragazietatik sortutako leiar distiatu ikusgarriakin>

<Iragazten da esne jetzi berria>

<Bae xeean igaziak>

<Eltxoa iragazi (ez iresteko) ta kamelua, berriz, kezkarik gabe iretsi>

<Bahe fonetikoan barrena, bestela esan, iragazi behar ditugu>

<Esne irasia> lait coulé

<Esnea irexi biagu> tenemos que colar la leche

<Gidariitsuak, eltzoa irazten duzue eta kamelua iresten> Coulez le moucheron

<Mats garu irazietatik ateretan dan ardaoagaz>

<Egosi denean, saltsa irazazu>

2 da aditza

pasar, atravesar

<Gozotasuna iragazten zait begiyetatik biyotzera>

<Nere bista iragaz baliteke arbol oien eta lañu lori orren tartetik>

Tradizio idatzian, ez dago *iragazi/irazi* aditzetik *-garri*, *-kor*, *-gaitz* atzizkiekin sortutako eratorriak (*iragazki* bai, tradizioduna da). Berriagoak dira hitz eratorri horiek, *Euskal hiztegiak* diotenaren arabera:

<**iragazi, irazi** (du ad.) Isurkari bat iragazkitik igaroarazi, filtratu: *Esnea iragazi eta gatzagia eman / Airea iragazi / Erliziozko sinestee jakintzaren irakaspentak iragaz ditzaten / Ur irazia / Har ezazu arruta eta kamamila ahur bat bana eta irakin pinta erdi bat ardotan; gero irazi duzunean emaiozu behiari edatera / Xehatzen da intxaurren mamia mortairuan eta irazten zurdazko bahe batean.>*

<**irazgaitz/iragazgaitz** (1965) (izond.) Lurrei, ehunei...buruz hitz eginez, ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten ez duena, *Lur geruza irazgaitzak. Ehun irazgaitza. Ekai irazgaitzak.>*

<**irazkor/iragazkor** (1965) (izond.) Lurrei, ehunei... buruz hitz eginez, ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten duena. *Lur geruza irazkorra.>*

Esanahi horrekin agertzen dira, halaber, *Euskaltermen*, *Geologia hiztegi entziklopedikoan*, *Elhuyar* hiztegietan eta entziklopedietan ere.

Hiztegi Batuak, esanahiari buruz argibiderik ematen ez badu ere, ontzat eman ditu hitz berriak:

iragazgaitz *Sin.* irazgaitz

iragazgaiztasun *Sin.* irazgaiztasun

iragazkor *Sin.* irazkor

iragazkortasun *Sin.* irazkortasun

iragazi/irazi aditzaren *du* erregimena duen adieratik abiatuta sortu dira eratorri horiek. Nolanahi ere, *iragazi/irazi* aditzaren *da* erregimena duen beste adieratik abiatuta, esan daiteke *iragazkor* eta *iragazkortasun* egokiak direla, halaber, *filtrable* eta *filt(er)ability* erdal kontzeptuen euskal ordainak sortzeko. Dena den, lehenengo adieraren bidetik erabiltzen dira gaur egun *iragazkor* eta *iragazkortasun*, hau da, erdal *permeable* eta *permeability* adierazteko.

da eta *du* erregimenak baliatzen dituzten beste aditz batzuetan, nolabaiteko espezializazioa gertatu da, eta *da* erregimenerako *-kor* atzizkiaz eta *du* erregimenerako *-garri* atzizkiaz eratutako eratorriak lortu dira. Adibidez:

lilurakor / liluragarri

lotsakor / lotsagarri

urrakor / urragarri

suntsikor / suntsigarri

kutsakor / kutsagarri

saminkor / samingarri

luzakor / luzagarri

Baina, *iragazi/irazi* aditzean, aukera hori ez da ia-ia inoiz erabili. *permeable* adierazteko, *iragazgarri/irazgarri* aukera ez da erabili, XX. mendeko euskararen corpusean eta Google bilatzailean ikus daitekeen bezala; *permeakor* edo *permeagarri* formak ere ez dira erabili (agerraldi bakarra *Googlen*).

IRTENBIDEAK

1 ORAIN ARTEKO ERABILERA NAGUSIA FINKATUTZAT JOTZEA

filtrar/filtrer/filtrate aditzetiko eratorri nagusiak hauek dira:

es filtracion
fr filtration, filtrage
en filtration

es ultrafiltración
fr ultrafiltration
en ultrafiltration

es filtrante
fr filtrant

Eta horiek, euskaraz, *iragazketa*, *ultrairagazketa* eta *iragazle* eman ohi dira.

permear/permeate aditzetiko eratorri nagusiak hauek dira:

es permeable
fr perméable
en permeable

es impermeable
fr imperméable
en impermeable

es permeabilidad
fr perméabilité
en permeability

es impermeabilidad
fr imperméabilité
en impermeability

es semipermeable
fr semiperméable; hémiperméable
en semipermeable

es semipermeabilidad
fr semiperméabilité
en semipermeability

Eta horiek, euskaraz, *iragazkor*, *iragazgaitz*, *iragazkortasun*, *iragazgaiztasun*, *erdiiragazkor* eta *erdiiragazkortasun* eman ohi dira.

Zorionez, eratorrien espezializazioa berez gertatu da, eta, aurreko horietan guztietan, ez da, itxuraz, arazorik sortzen. Kasu batean, ordea, badago arazoa:

filtrabilidad / filterabilité / filt[e]rability

índice de filtrabilidad / filterability index / coefficient de filterabilité; indice de filterabilité

iragazkortasun erabiltzen denez *permeability* adierazteko, ez da komeni *iragazkortasun* erabiltzea *filtrability* adierazteko, nahiz eta hitza ondo sortuta egon. Beraz, irtenbidea mailegatzea da: *filtrabilitate*. Mailegatzeko gutxieneko baldintzak betetzen ditu, nazioartekoa baita (ingelesez, *filterability*; danieraz, *filtrerbarhed*; alemanez, *Filtrierbarkeit*; gaztelaniaz, *filtrabilidad*; frantsesez, *filtrabilité*; italieraz, *filtrabilità*; nederlandera, *filtrerbaarheid*; portugesez, *filtrabilidade*; suedieraz, *filtrerbarhet*).

filt(e)rability terminoarekin batera, eta haren jatorrian, *filt(e)rable/filtrable/filtrable* adjektiboa badago (1 *That can be filtered or separated by filtering*. 2 *That can pass through a given pore size*). Adibidez:

es solución filtrable
fr solution filtrable
en filterable solution

Baina badirudi hori, euskaraz, *iragazgai* esan litekeela arazorik gabe (*ikusgai, erregai* izenondoak bezala): (*di*)soluzio *iragazgai*.

Horrela jokatzek baditu abantailak. Azken hogeita hamar eta gehiago urteotan testu teknikoetan erabiltzen ari diren terminoak ez lirateke aldatu beharko. Hiztegi, entziklopedia eta testu teknikoetan erabiltzen diren terminoak, hala, finkatutzat har daitezke. Gainera, ematen du ondo sortuta daudela, hau da, ez du ematen hizkuntza behartuta sortu direnik. Arazoa sortzen duen termino-bikotea (*permeability/filterability*) kasu mugatua da, eta mailegutza erabilia konpon daiteke (*permeability: iragazkortasun / filtrability: filtrabilitate*).

2 ORAIN ARTEKO ERABILERA BAZTERTU, ETA TERMINOAK EX NOVO SORTZEA

Aukera teoriko bat da atzizkien espezializazioa baliatzea arazoa konpontzeko. Beste aditz batzuetan dagoen eratorrien espezializazioaren bidetik (*lilurakor / liluragarri; lotsakor / lotsagarri; urrakor / urragarri; suntsikor / suntsigarri; kutsakor / kutsagarri; saminkor / samingarri; luzakor / luzagarri;...*), bereizketa hau proposa liteke:

permeable: iragazgarri
filt(e)rable: iragazkor

Eta, hortik:

permeability: iragazgarritasun
filt(e)rability: iragazkortasun

Baina aukera artifizial horrek, beharbada, erabiltzaileak nahasi besterik ez luke lortuko, *-garri/-kor* bikotearen arteko bereizketa ez baita beti hain argia, eta, bereizketa hori ezarriz gero, orain arteko erabilera alde batera utzi behar litzateke.

Beste aukera bat da ohargileak proposatutako *permeakor* erabiltzea. Onargarria izango litzateke baldin eta *permeatu* aditza mailegatzea (ingelesez *permeate*, gaztelaniaz *permear*) ontzat emango balitz (*boxeatu, desblokeatu, deseatu, paseatu, planteatu, saneatu, solfeatu, toreatu* onartu diren bezala). Hartara:

permeable: permeakor
permeability: permeakortasun
impermeable: permeagaitz
impermeability: permeagaiztasun
semipermeable: erdipermeakor

Hala egitera, *iragazkor* eta *iragazkortasun* geldituko lirateke *filt(e)rable* eta *filt(e)rability* terminoen euskal ordainetarako. Aukera honek konpondu egingo luke arazoa, mailegu bat erabiliz (*permeatu*). Baina kontuan izan behar da lehenengo aukerak ere halaxe konpontzen duela arazoa, mailegu bat erabiliz (*filtrabilitate*).

PROPOSAMENA

	<p>Aurreko puntuan egindako argudiatzea ontzat ematera, bi aukera daude:</p> <p>1 Gaurko erabilerari eustea, eta, polisemia saihesteko, mailegu bat hartzea: permeable: iragazkor permeabilidad: iragazkortasun</p> <p>filt(e)rable: iragazgai filtrability: iragazgaitasun; filtrabilitate</p> <p>2 Gaurko erabilera alde batera uztea, eta, polisemia saihesteko, eratorrien jatorrian dagoen aditza mailegatzea (permeatu):</p> <p>permeable: permeakor permeabilidad: permeakortasun</p> <p>filt(e)rable: iragazkor filtrability: iragazkortasun</p> <p>Bi aukera horien artean, irizpide soziolinguistikoak lehenengoaren alde desokertzen du balantza, hau da, orain arteko erabilera aski batu eta finkatutzat jo daitekeenez, badirudi hobe litzatekeela hari eustea eta, arazoa dagoen tokian, arazoa konpontzea, gaurko erabilera erabat baztertzea baino.</p>
--	---

Forma baztertuak

TR	KG	IT
Arrazoibidea		

OHARRAK

--

5. ITURRIAK

Txostena egitean aipa daitezkeen obra nagusien kodeak zehazten dira ondorengo taulan (Euskaltermeko kodeak dira). Taulan agertzen den obra bat aipatzean, kode normalizatu hori erabili beharko da. Era berean, taulan ez dagoen obraren bat aipatu behar izanez gero, txostenean erabili den kodea eta kode hori deskodetuko duen azalpena gehituko dira taula honetan.

Kodea	Azalpena
3100	EUROPEAN COMMISSION TRANSLATION SERVICE: <i>Eurodicautom</i> datu-bankua: http://europa.eu.int/eurodicautom/Controller
AI91	OFFICE DE LA LANGUE FRANÇAISE (Québec). <i>Le grand dictionnaire terminologique</i> : http://www.granddictionnaire.com
AM21	EUSKALTZAINDIA. <i>Hiztegi Batua</i> .
BA35	EUSKALTZAINDIA. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> . Bilbo: Mensajero; Desclee; Euskaltzaindia, 1995.

- BC13 REAL ACADEMIA ESPAÑOLA. *Diccionario de la Lengua Española*. Madril: Real Academia Española, 2001.ç
- BB38 SARASOLA, I. *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa, Gizarte- eta Kultur Fundazioa, 1996.
- ING Ingurumena.
- INGHE INGURUMEN SAILA. *Ingurumen hiztegi entziklopedikoa* 2. edizioa (argitaratu gabe dago).
- Euskalterm *Euskalterm* datu-bankua: http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
- Robert LE ROBERT. *Le Petit Robert*. Paris: 1993
- Webster *Merriam-Webster*; <http://www.m-w.com/>
- AM21 EUSKALTZAINDIA. *Hiztegi Batua*.
- BA35 EUSKALTZAINDIA. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Mensajero; Desclee; Euskaltzaindia, 1995.
- BB38 SARASOLA, I. *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa, Gizarte- eta Kultur Fundazioa, 1996.
- Euskalterm *Euskalterm* datu-bankua: http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm

6. ERABILITAKO LABURDURAK

DF	definizioa
EE	erabileremua
EK	erabileremuaren kodea
IR	irudia
IT	iturria
KG	kategoria gramatikala
OH	oharrak
SN	sinonimoa
TR	terminoa
TS	testuingurua/k
de	alemana
en	ingeleza
es	gaztelania
fr	frantsesa